# academias fantásticas

# akademia fantastikoak



guía de lectura juvenil · gazteentzako irakurketa gida

otoño 2018ko udazkena

biblioteca
civican
liburutegia

Escuelas de magia, internados vampíricos, institutos fantasmales… Ya está abierto el plazo para “matricularse” en los más inquietantes centros escolares. El trámite es sencillo: abrir las páginas y sumergirse en la lectura. Presentamos un conjunto de sugerencias literarias para jóvenes ávidos de emociones. El mundo académico puede ser más llevadero con buenas dosis de imaginación.
¿Quién se inscribe?

Magia eskolak, banpiroen barnetegiak, mamu institutuak... Dagoeneko irekita dago ikastetxe aztoragarrienetan "matrikula" egiteko epea. Izapidea erraza da: orriak ireki eta murgildu irakurketan. Emozio gosez dauden gazteentzako literatur iradokizunen sorta bat aurkezten dugu. Mundu akademikoa eramangarriagoa izan daiteke irudimen dosi onekin.
Nork emango du izena?




Costa ALCALÁ (Gèorgia Costa y Fer Alcalá)

**La segunda revolución**

Montena, 2017- (2/3 v.)

Antes de la Revolución había diez Familias, una para cada poder. Ahora solo quedan ocho. Aura desapareció. De Dominio, la Familia Imperial, solo queda un mal recuerdo.
Casi veinte años después, los estudiantes del **Liceo de la Guardia de Blyd** se entrenan para proteger con su magia a una sociedad que hace años que vive en paz. Pero cuando la sombra de Dominio vuelve a acechar al país, un grupo de estudiantes tendrá que enfrentarse a los secretos del pasado... sin revelar los suyos.

Iraultzaren aurretik, hamar Familia zeuden, botere bakoitzeko bat. Orain, zortzi bakarrik geratzen dira. Aura desagertu egin zen. Dominioren, Familia Inperialaren, oroitzapen txarra besterik ez da geratzen.
Ia hogei urte geroago, **Blyden Guardiako Lizeoko** ikasleak entrenatu egiten dira beren magiarekin duela hainbat urtetik bakean bizi den gizarte bat babesteko. Baina Dominioren itzalak herrialdea mehatxatzen duenean, ikasle talde batek iraganeko sekretuei egin beharko die aurre... beraienak ezagutarazi gabe.

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]




Ledicia COSTAS

**La balada de los unicornios**

Anaya, 2018

La **Escuela de Artefactos y Oficios** acoge a los jóvenes más brillantes. Son capaces de crear casas motorizadas, sombreros voladores y demás proezas. Ágata McLeod es una de las mejores alumnas, pero hay muchas cosas que desconoce de la institución... y de su pasado. La inventora tendrá que viajar al origen del mundo en una travesía repleta de aventuras y peligros.

**Artefaktu eta Lanbideen Eskolak** gazte distiratsuenak hartzen ditu. Etxe motorizatuak sortzeko gai dira, baita kapela hegalariak eta beste hainbat balentria ere. Ágata McLeod da ikasle onenetako bat, baina gauza asko ez ditu ezagutzen erakundearekin lotuta... ezta bere iraganarekin lotuta ere. Asmatzaileak munduaren jatorrira bidaiatu beharko du abentura eta arriskuz betetako bidaia batean.

[reseña • erreseina: www.anayainfantilyjuvenil.com]



C. J. DAUGHERTY

**Night School. Tras los muros de Cimmeria**

Alfaguara, 2012 (1/5 v.)

El mundo de Allie se viene abajo: odia su ciudad, su hermano se ha escapado de casa y ella ha sido arrestada. Otra vez. Sus padres deciden mandarla a una escuela para chicos problemáticos. Pero **Cimmeria** no es una escuela normal: no permiten ordenadores ni teléfonos móviles y los alumnos son, o superdotados, o ricos. Pero, además, Cimmeria esconde un secreto, un secreto que solo comparten algunos profesores y los alumnos de las misteriosas clases nocturnas de la Night School.

Allieren mundua gainbehera etorri da: gorroto du bizi den hiria, anaiak etxetik ihes egin du eta bera atxilotu egin dute. Beste behin. Gurasoek nerabe arazotsuentzako eskola batera bidaltzea erabaki dute. Baina **Cimmeria** ez da ikastetxe normal bat: ez daude baimenduta ordenagailuak eta telefono mugikorrak, eta ikasleak supergaituak edo aberatsak dira. Baina, gainera, Cimmeriak sekretu bat dauka; sekretu hori Night Schooleko gaueko eskola misteriotsuetako irakasle eta ikasle batzuek soilik ezagutzen dute.

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]



Amelia DRAKE

**La Academia**

Siruela, 2016-2018 (3/3 v.)

En la gran ciudad de Danubia, en una isla deshabitada, se esconde esta **escuela prohibida que nadie conoce**. Y Twelve ha sido elegida para formar parte de ella.

Danubia hiri handian, uharte huts batean, **inork ezagutzen ez duen eskola debekatu** bat ezkutatzen da. Eta Twelve bertako kide izateko aukeratua izan da.

[reseña • erreseina: www.siruela.com]




Laura GALLEGO

**El libro de los portales**

Minotauro, 2013

Los pintores de la **Academia de los Portales** son los únicos que saben cómo dibujar los extraordinarios portales de viaje que constituyen la red de comunicación y transporte más importante de Darusia.
Cuando Tabit, estudiante de último año en la Academia, recibe el encargo de pintar un portal para un humilde campesino, no imagina que está a punto de verse involucrado en una trama de intrigas y secretos que podría sacudir los mismos cimientos de la institución.

**Portaleen Akademiako** margolariek bakarrik dakite nola marraztu Darusiako komunikazio eta garraio sarea osatzen duten bidaia portale ezohikoak.
Tabitek, Akademiako azken urteko ikasleak, nekazari xume batentzako portale bat margotzeko enkargua jasotzen duenean, ez du imajinatu ere egiten erakundearen oinarriak irauli ditzakeen intriga eta sekretuen trama batean murgilduko denik.

[reseña • erreseina: www.planetadelibros.com]




Lev GROSSMAN

**Los magos**

Ediciones B, 2009* (1/3)

Quentin Coldwater es un chico brillante pero desdichado que vive obsesionado con las novelas de fantasía que leyó en su infancia y que transcurrían en un país mágico llamado Fillory. Cuál no será su sorpresa cuando inesperadamente es admitido en una muy secreta y exclusiva universidad de magia en Nueva York, **La escuela Brekebills**, donde recibirá una rigurosa educación sobre los arcanos de la moderna hechicería y descubrirá la amistad, el amor, el sexo, la bebida y el aburrimiento.

Quentin Coldwater mutil bikaina da, baina gizagaixoa, eta haurtzaroan irakurri zituen eta Fillory izeneko herrialde magiko baten gertatzen ziren fantasiazko eleberriekin obsesionatuta bizi da. Ezusteko izugarria jasotzen du ustekabean New Yorkeko magia unibertsitate oso sekretu eta esklusibo batean onartzen dutenean, **Brekebills eskolan**. Han, hezkuntza zorrotza jasoko du aztikeria modernoaren sekretuei buruz eta adiskidetasuna, maitasuna, sexua, edaria eta asperdura ezagutuko ditu.

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]




Josan HATERO y Use LAHOZ
**Volverán a por mí**
La Galera, 2012

Greco, un chico problemático de dieciséis años, es enviado a una prestigiosa institución inglesa, la **Academia Fénix**, que tiene fama de enderezar a jóvenes rebeldes en tiempo récord. Allí conoce a Iris, otra interna. Juntos, irán viendo que en la academia suceden cosas muy extrañas a los alumnos, que de un día al otro desaparecen para volver inquietantemente cambiados y dóciles. Greco e Iris tienen muy poco tiempo para descubrir el misterio de la Academia Fénix y su siniestra directora, o ellos serán sus próximas víctimas..

Greco, hamasei urteko mutil arazotsu bat, instituzio ingeles ospetsu batera bidaltzen dute, **Fénix Akademiara**, gazte errebeldeak denbora errekorrean zuzentzeko fama duenera. Han, Iris ezagutuko du, beste barneko ikasle bat. Elkarrekin ikusiko dute ikasleei gauza oso arraroak gertatzen zaizkiela akademian, egun batetik bestera desagertu egiten direla, era kezkagarrian aldatuta eta esaneko itzultzeko. Grecok eta Irisek denbora oso gutxi dute Fénix Akademiaren eta haren zuzendari maltzurraren misterioa ezagutzeko, edo, bestela, eurak izango dira hurrengo biktimak...

[reseña • erreseina: www.lagaleraeditorial.com]




Masashi KISHIMOTO
**Naruto**
Glénat, 2002 (1-2, 4-16/60 v.)

En la Villa Oculta de la Hoja, un chaval de los más problemático que estudia en la **escuela de ninjas**, Naruto, se dedica a urdir gamberrada tras gamberrada. El sueño de Naruto es el de llegar un día a heredar el nombre de Hokage, reservado a los grandes héroes, y de convertirse en el mejor ninja de todos los tiempos. ¿Podrá Naruto llegar a cumplir sus anhelos de grandeza?

Orrien arteko Etxe Ezkutuan, Naruto, **ninja eskolan** ikasten duen gazte arazotsuenetako bat, okerkeriaz okerkeria dabil. Narutoren ametsa Hokage izena oinordetzan hartzera iristea da, heroi handientzat gordetzen dena, eta inoizko ninja hoberena bihurtzea. Bete ahal izango al ditu Narutok bere handitasun gogoak?

[reseña • erreseina: contraportada / atzeko azala]



Fernando LALANA
**El comando Gorki**
Edebé, 2016

1942. El **colegio Gorki** alberga alumnos procedentes de la Unión de Repúblicas Socialistas Soviéticas (URSS). Se trata de un internado aislado de la civilización, en la fría Siberia Occidental, entre los vientos gélidos de la taiga y los sonidos lejanos de una guerra que lleva varios años desangrando Europa

1942. **Gorki eskolak** Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko (SESB) ikasleak hartzen ditu. Zibilizaziotik isolatutako barnetegi bat da, Mendebaldeko Siberia hotzean, taigako haize izoztuen eta duela hainbat urtetik Europa aletzen ari den gerraren soinu urrunen artean.

[reseña • erreseina: www.canallector.com]



Ursula K. LE GUIN
**Un mago de terramar**
Minotauro, 2003

En el archipiélago de Terramar hay dragones, magos y espectros, talismanes y poderes. Es un mundo gobernado por la magia y, ante todo, por las palabras, pues cada cosa posee su nombre verdadero, el designado durante la Creación, que otorga a los hechiceros el dominio sobre los elementos y los animales. Sus gentes, sencillas y tranquilas, tienen como único objetivo conseguir paz y sabiduría

Terramar artxipelagoan dragoiak, magoak eta espektroak, talismanak eta botereak daude. Magiak gobernatutako mundua da eta, batik bat, hitzek; izan ere, gauza bakoitzak bere benetako izena du, Sorkuntzan izendatuak, eta horiei esker, aztiek elementuak eta animaliak menderatzen dituzte. Bertako jendeak, xumeak eta lasaiak, bakea eta jakinduria lortzea soilik dute helburu.

[reseña • erreseina: www.planetadelibros.com]



Richelle MEAD

**Vampire Academy**

Alfaguara, 2011* (5/5 v.)

Los dhampir no pueden enamorarse. Son exclusivamente guardianes y están obligados a protegerse continuamente de las mortales amenazas de los strigoi (los vampiros más violentos y peligrosos, los únicos que nunca mueren). Esto es un problema para Rose cuando descubre que su tutor en la **Academia de vampiros** va a ser Dimitri, por quien se siente más que atraída.

Dhampirak ezin dira maitemindu. Zaindariak dira soil-soilik eta strigoien (banpiro bortitz eta arriskutsuak, inoiz hiltzen ez diren bakarrak) mehatxu hilgarrietatik etengabe babestu behar dira. Rosentzat arazo bihurtzen da **banpiroen akademiako** tutorea Dimitri izango dela jakitea, hark erakartzen baitu gehien.

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]



Isaak PALMIOLA

**Secret Academy**

Montena, 2014* (1/5 v.)

Existe, en medio del océano Atlántico, una pequeña isla que no aparece en ningún mapa. Allí se encuentran las instalaciones de la **Secret Academy**, una misteriosa y exclusiva escuela para alumnos cuidadosamente elegidos. Nadie conoce los métodos de enseñanza ni qué es lo que aprenden exactamente los chicos y chicas; lo único que se sabe es que tienen prohibido hablar de ello con nadie...

Ozeano Atlantikoaren erdian, mapetan agertzen ez den uharte txiki bat dago. Han, **Secret Academyren** instalazioak daude, kontu handiz aukeratutako ikasleentzako eskola misteriotsu eta esklusibo bat. Inork ez ditu ezagutzen bertako irakaskuntza metodoak, ezta zer ikasten duten zehazki gazteek ere; ezagutzen den gauza bakarra da ezin dutela inorekin hitz egin horretaz...

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]




Terry PRATCHETT

**El color de la magia**

Martínez Roca, 1989*

En un mundo plano sostenido por cuatro elefantes impasibles -que se apoyan en la espalda de una tortuga gigante- habitan los estrafalarios personajes de esta novela: un hechicero avaro y torpe, un turista ingenuo cuyo fiero equipaje le sigue a todas partes sostenido por cientos de patitas, dragones que solo existen si se cree en ellos, gremios de ladrones y asesinos, espadas mágicas, la Muerte y, por supuesto, además de un extenso catálogo de magos y demonios la **Universidad Invisible.**

Lau elefante sorgorrek eusten duten (dortoka erraldoi baten bizkarraren gainean) mundu plano batean bizi dira eleberri honetako pertsonaia xelebreak: azti zeken eta baldar bat, turista inozo bat (haren ekipaje basatiak edonora jarraitzen dio, ehunka hankatxok eutsita), haietan sinesten bada soilik existitzen diren dragoiak, lapur eta hiltzaileen gremioak, ezpata magikoak, Heriotza eta, jakina, mago eta demonioen katalogo zabal batez gain, **Unibertsitate Ikusezina.**

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]




Rick REMENDER; Wes CRAIG

**Clase Letal**

Norma, 2015 (1/5 v.)

Cambia el mundo con una bala. Es 1987 y Marcus López, un adolescente sin hogar, no tiene razones para seguir viviendo. Pero un día una chica misteriosa le propone que entre en la **escuela Kings Dominion de Artes Letales**. Aquí el asesinato es un arte y matar una asignatura más a dominar. Rick Remender presenta su obra más personal, un intenso y violento viaje a la subcultura de los 80.

Mundua bala batekin aldatzen da. 1987 da eta Marcus Lópezek, etxerik gabeko nerabe batek, ez du arrazoirik bizitzen jarraitzeko. Baina neska misteriotsu batek **Arte Hilgarrien Kings Dominion eskolan** sartzeko proposatzen dio. Hor, erailtzea artea da eta hiltzea menderatu beharreko beste irakasgai bat. Rick Remenderrek bere lanik pertsonalena aurkezten du, 80ko azpikulturara eginiko bidaia bizi eta bortitza.

[reseña • erreseina: www.normaeditorial.com]




Patrick ROTHFUSS

**El nombre del viento. Crónica del asesino de reyes: primer día**

Plaza & Janés, 2009

«He robado princesas a reyes agónicos. Incendié la ciudad de Trebon. He pasado la noche con Felurian y he despertado vivo y cuerdo. Me expulsaron de **la Universidad** a una edad a la que a la mayoría todavía no los dejan entrar. He recorrido de noche caminos de los que otros no se atreven a hablar ni siquiera de día. He hablado con dioses, he amado a mujeres y he escrito canciones que hacen llorar a los bardos. Me llamo Kvothe. Quizá hayas oído hablar de mí.»

«Printzesak lapurtu dizkiek hiltzear zeuden erregeei. Trebon hiriari su eman nion. Felurianekin igaro dut gaua eta bizirik eta zentzudun iratzarri naiz. **Unibertsitatetik** bota ninduten, gehienei sartzen ere uzten ez dieten adinean. Beste batzuk egunez aipatzea ausartu ere egiten ez diren bideetatik igaro naiz gauez. Jainkoekin hitz egin dut, emakumeak maitatu, eta bardoei negar eragiten dieten abestiak idatzi. Kvothe naiz. Agian, entzungo zenuen zerbait niri buruz».

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]




Noelle STEVENSON, Grace ELLIS y Brooke ALLEN

**Leñadoras**

Sapristi, 2017 (3-/3 v.)

Cinco amigas pasan el verano de **campamento** desafiando a yetis hipsters, lobos de tres ojos y halcones gigantes mientras resuelven misterios. Jo, April, Mal, Molly y Ripley son las Leñadoras, exploradoras guerreras, divertidas y un poco cínicas. Date una vuelta con las chicas más cañeras del campamento más hardcore del mundo del cómic, donde nada es lo que parece y todo puede ocurrir.

Bost neska lagun uda **kanpamentu** batean igarotzen ari dira, yeti hipster, hiru begiko otso eta belatz erraldoiak desafiatuz, misterioak ebazten dituzten bitartean. Jo, April, Mal, Molly eta Ripley egurgileak dira, esploratzaile gerrariak, dibertigarriak eta ziniko samarrak. Eman buelta bat komikiaren munduko kanpamentu hardcorenean neska dibertigarrienekin; ezer ez baita ematen duena eta dena gerta baitaiteke.

[reseña • erreseina: www.megustaleer.com]




Hitoshi TOMIZAWA

**Alien 9**

Ivréa, 1999 (3/3 v.)

Unos extraños alienígenas han invadido la Tierra, y esto provoca que hasta en los colegios deban formarse escuadrones para detenerlos. Tres chicas de 6to grado, Yuri Otani, Kasumi Tomine y Kumi Kawamura, son las elegidas para defender la **escuela** a la que asisten. Aunque no estarán solas en la lucha sino que serán secundadas por unos parásitos (también extraterrestres) llamados Borgs, que tienen la particularidad de alimentarse de la mugre humana!

Estralurtar arraro batzuek Lurra inbaditu dute, eta horren ondorioz, ikastetxeetan ere eskuadroiak prestatu behar dira haiek geldiarazteko. 6. mailako hiru neska (Yuri Otani, Kasumi Tomine eta Kumi Kawamura) aukeratu dituzte haien **eskola** defendatzeko. Borrokan ez dira bakarrik egongo ordea; Borgs izeneko parasito batzuek (estralurtarrak baita ere) lagunduko diete. Azken horien bitxikeria nagusia da giza zoldaz elikatzen direla!

[reseña • erreseina: http://www.editorialivrea.com/]




Mark WALDEN

**HIVE escuela de malhechores**

Anaya, 2008 (2/2 v.)

Primera entrega de las aventuras de Otto, un muchacho superdotado que ingresa contra su voluntad en la siniestra institución **Hive**, que tutela una escuela secreta de malhechores. Un relato de ritmo casi cinematográfico, contado con un original estilo narrativo que mantiene el interés y la tensión hasta el desenlace.

Ottoren abenturen lehen entrega. Otto mutil supergaitu bat da, eta bere borondatearen aurka **Hive** zorigaiztoko instituzioan sartzen dute, gaizkileen eskola sekretu bat zuzentzen dunenean. Erritmo ia zinematografikoa duen kontakizuna da, eta lanaren estilo narratibo originalari esker, interesari eta tentsioari eusten zaio amaierara arte.

[reseña • erreseina:www.canallector.com]



*Material disponible en otras bibliotecas de Navarra
*Nafarroako beste liburutegietako material librea

Descargar guía de lectura en pdf
Irakurketa gida jaitsi

**www.bibliotecaspublicas.es/civican**
**CivicanLib.blogspot.com**